

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutilei laguntzeko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2021-2022 ikasturtea**

BDNS(Identif.): 574960

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/574960>).

#### **Lehen. Onuradunak**

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, Lehen Hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza psikopedagogikoa emateko erabiliko dute, betiere Udalaren Hezkuntzak Zerbitzuak (Hezkuntza eta Kultura Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkeztzen dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorritik.

#### **Bigarrena. Helburua**

Diru laguntzen deialdi honen xedea hau da: 2021-2022 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea. Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden, eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoek laguntza psikopedagogikoko hori eskuratzeko aukera izan dezaten.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

150.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdira dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2021eko irailaren 24ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 2a

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE**